

Diskoak

IKER BARANDIARAN



World Champions.
Eureka Hot 4.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 42' 44".
12,60 euro.

Beltza eta errebeldea

BANEUKAN GOGOA halako talde bat entzuteko. Atom Rhumba taldeko sortzaile izandako Sergio Llanos ipurterrea da, eta azken urteotan Eureka Hot 3 taldearekin buru-belarri zebilen musika beltza eta rock-and-rolla batu nahian. Azkenean, Münsterland, Cyprinidians eta beste talde batzuetan ibilitako baxu, saxo eta bateriarekin, laukote bihurtu eta emaitza borobila lortu du. Rocket from the Crypt

berpiztuko lukeen jai giroko punk-rock-and-rolla (*Mercury girl*), Dirtbombs-en usainean punk eta soula bat egitea (*She got me*, *On the wave*), New Orleansko plater goxoak (*Food wars*), new wave eta garagea (*Clone machine*), eta soul, latino, jazz... Txapeldunak diren ala ez, entzun ostean esan beharko duzu; baina ziur egon, abesti onak idazteaz gain, zeu dantzazteko gai direla. Eta hori asko da.

Sergio Llanos - Eureka Hot 4

«Gurea musika estiloak ondo irentsita egindako digestioa da»

Zer ematen dizue musika beltzaren eta punkaren arteko batuketak?

Zuriak gara eta nerabeak ginela pasioz hartu genuen punkaren eta rockaren errebeldea. Gerora, musika gehiago entzun, eta ulertu genuen guztia musika beltzetik datorrela. Gurea estiloak ondo irentsita egindako digestioa da; inola ere ez gara musika beltza egiten saiatzen den zurien taldea. Gure emaitza desberdina da eta interesgarriagoa.

Lehen musika taldeak egiten zituzten neskak erakartzeko; eta badi-ra diotenak garrantzitsuena harremanak direla. Zuek ez dakit zein puntutan zaude-ten, baina ia kantu guztiek neskez hitz egiten dute...

Bai, hala da, baina askotan aitzakia standard horren atzean beste gauza askotaz hitz egiten dugu. Kode antzeko bat da, folkean gai batzuk

erabili ohi izan diren bezala.

World champions. Onenak zarete ala ez? Edo beste talde batzuekin alderatuta, bestelako helburuak dituzue?

Gurean onenak gara, beste inork ez duelako guk egiten duguna egiten gure erara. Momentuz munduko txapeldunak, eta gero etorriko dira beste helburu batzuk; are gehiago, oso gustura gaude diskoaren emaitzarekin.

Ez zarete berriak honetan. Zer ikasi duzue borroka urte hauetan guztietan, inoiz ahaztuko ez duzuenak?

Ba, musikaren mundu honetan balio duena da ezagutu dezakezun jende interesgarria, eta horrek ahalbidetzen duen kultura eta giza trukatzeari. Zoritxarrez, ezin dugu ahaztu aurrera egiteko gero eta horma lodiagoak jartzen dizkigutela. Baina, azkenean lehenengoak guztia konpentsatzen du.

Euskal Herriko taldeak serioegiak dira?

Euskal Herrian gauzak serioegi hartzen ditugu. Taldeek izugarriko profesionaltasuna dute, eta badirudi batzuetan espontaneitate eta freskotasan apur bat galtzen dela. Baina salbuespenak ere badira: Euskal Herrian izaera handiko taldeak daude, serioagoak zein dibertigarriagoak izan. ■

